

BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2017

BASQUE - LV2

MERCREDI 21 JUIN 2017

Séries **ES/S** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Série **L** Langue vivante obligatoire (LVO) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **4**

Série **L** LVO et langue vivante approfondie (LVA) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **8**

Séries **STMG, ST2S, STI2D, STD2A, STL** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

ATTENTION

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa
série :

Série L (LVA Y COMPRIS) : questionnaire pages 4/5

Séries ES/S/STMG/ST2S/STI2D/STD2A/STL : questionnaire page 5/5

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

Barème appliqué pour la correction.

<i>Compréhension</i>	<i>10 points</i>
<i>Expression personnelle</i>	<i>10 points</i>

Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

Ce sujet comporte 5 pages numérotées de 1/5 à 5/5

Kattalinen ikasleak loriaturik daude Jackie-ren amaren istorioen entzuten. Gehiago jakin nahi dute. Harriturik daude, ez baitzitzaien behin ere gogotik iragan gerla garaian Euskal Herrian nolako mugimenduak izan zitezkeen. Nehork ez zien sekulan aipatu hemen ere Erresistentziak esku hartu zuela. Beti Frantziako eta Europako bertze herrietako erresistenteen eta soldaduen balentrien¹ berri jakiten zuten, telebistaren bitartez bereziki. Alemanek Euskal Herriaren zati bat ere okupatu zutela bazekiten, hala ere, historia liburuetan ikusirik eta, zenbaitzuen kasuan, aitatxi eta amatxiekin mintzaturik. Baina ez gehiagokorik...

-Badakizue, ez zen bakarrik ene ama, mugalaritzan ibiltzen zena alde haietan- dio Jackie-k-. Saran bertze jende frangok pasarazten zituen juduak, ingelesak eta amerikarrak mugaz bertzaldera. Funtsean, Kattalin, zure aitatxi ere, gaur jakinarazi didazunaren arabera....

-A baia! Zure aitatxi ere mugalaria² zen ?-galdetzen du mirespenez Txominek.

-Bainan ez Saran. Itsasun, zehazten du Kattalinek. Aitatxik beti erraiten zidan muga guzian bazirela xokoak. Bakoitzak bazituen bereak, onddoketarako bezala.

-Eta nola sartu zen "ofizio" hartan ?

Kattalinek Joanesen egoera esplikatzen die, soldadu zela eta familiako sostengu bezala etxera itzultzeko baimena ardietsi zuela. Solasetik solasera, alemanen okupazioaz xehetasun emaiten hasten dira bai Kattalin eta bai Jackie.

-Bainan Kattalin -segitzen du Txominek-, jakinez zure aitatxi Frantziako armadan zela, alemanek ez zuten hurbiletik zaintzen ?

-Hilabetean behin aurkeztu behar izaiten zuen Donibane Lohitzunen, armada alemanaren egoitza nagusian, Hôtel de la Poste etxean.

-Eta Itsasun aleman ainitz egoiten zen ? [...]

-Aitatxik kondatzen zidanaren arabera, ez zen aleman eskasik bazter haietan. 750 bat aleman ba omen ziren Itsasun, horietatik 250 SSak.

Hura bai zela okupazioa! Bazter guziak emokatuak³ ziren alemanez. Joanesek zuhurki jokutzen ikasi zuen. Beharko! Bertzenaz ere, ez ziren bakarrik alemanak hurbiletik zaindu behar zirenak. Joanesek beti errepikatzen zion Kattalini, jendarmeak ere ustel eder batzuk zirela, Kanbokoak bereziki. Gune askean⁴ bezala, Pétain-en zerbitzuko zeuden.

Setio hark ez zuen Joanes lotsarazten⁵. Gauaz mendian eta egunaz, zenbait aldiz, Baionan eta gune askean ibiltzen zen. Baionan jakiten zuen iheslariak noiz ekarriko zizkioten. Armendaritzera, aldiz, gutun batzuen igortzera joaiten zen. Ez ardura, baina, noiz behinka gertatzen zitzaion. Armendaritzek markatzen zuen gune okupatuaren eta askearen arteko muga. Bazterrak izigarri zaintzen zituzten. Baina Joanes ez zuten sekulan sareetara bildu.

-Badakizu, Kattalin maitea -kondatu zion behin Joanesek- gutunak eramaiten genituelarik, Armendaritzera heltzean, erroik⁶ kontrolatzen gintuzten. Biluz gorrian ezartzen gintuzten, jantzietako plegu guziak miatzen zituzten. Ez zidaten tutik ere atxeman. Gutuna zangoko bi erien artean gordetzen nuen, ttipi ttipi plegaturik. Ez zizkidaten galtzerdiak kenarazten...

Joanesek Armendaritzeko jaun erreitoraren⁷ balentrien berri ere eman zion Kattalini. Egunero "muga" zeharkatzen zuen pirripitaz. Beti gutunak pasarazten zituen alde batetik bertzera. Sotana aski handia zukeen entziklopedien karreatzeko ere, baina sotanaren azpian ez zuen kontrabandarik. Gutunak pirripitaren⁸ gidoinaren barnean sartzen zituen.

Gestapoa ohartu zen, ordea, noizbait, apezaren jukutriaz. Alde batetik bertzera iragan zen ondoko egunean ez zeukaten bakean uztekoa... Gidoinarene barnean zerbait ba ote zen ontsa miatu zuten... Ez zitzaien biziki baliatu, egun hartan justu justua, apezak ez baitzeraman hitz klandestinatorik berarekin.

50

Eta holako zenbat istorio ez zen gertatzen urte haietan...

Anbroxio (2002), Eneko BIDEGAIN 38-41 orr.
Elkar argitaletxea.

Hiztegia :

¹ Balentria : *exploit*

² Mugalaria : *le passeur*

³ Emokatuak : beteak

⁴ Gune askean : *dans la zone libre*

⁵ Lotsarazten : beldurtzen

⁶ Errotik : osoki

⁷ Jaun erretora : apeza

⁸ Pirripitaz : txirrindulaz

QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SÉRIE L LVO & LVA

(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

I. ULERMENA : (10 puntu)

Les candidats de L LVO ne répondront pas aux questions 8 et 9.

1. Noizko egoera oroitarazten du idazki zati honek ? Zer alderdi aipatua da bereziki ? Bizpahiru frogara altxatuz egiazta ezazu.
2. Testuinguruari lotutako zein aktibitate aipatzen da hemen ? Nor laguntzen zuten bereziki ?
3. Non iragaiten dira gertakari hauek ?
4. Nor da Kattalinen aita ? Zer jakiten dugu hartaz ?
5. Zer erran dezakezu bertan ziren alemanen kopuruetaz ? Egiazta ezazu.
6. Alemanez gain beste nortaz mesfidatu behar zuten ? Zergatik ?
7. Zertara joaten zen Baionara eta Armendaritzera Joanek ?

Questions uniquement à l'attention des candidats de la série L (LVA)

8. Zergatik baziren miaketak Armendaritzan ? Zer egiten zuen Joanek kontrolatzen ez harrapatua izateko ?
9. Zer egiten zuen Armendaritzeko apezak ? Zertarako ?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

Pour les candidats de la série L – LVO & LVA :

Les candidats de L LVO et LVA traiteront toutes les questions.

1. Kattalinek gau eskolako ikasleei bere aitaxiren balentriak aipatzen dizkie eta hauetarik aintzek ez dakite ere ixtorio horiek iparraldean gertatu zirenik. Zer pentsatzen duzu horrelako aipamenetaz ? Garrantzitsua al da jakitea Historiako une larri haietan zer egin zuten hemengo jende askok, gure arbasoetarik batzuek ? Zergatik ? Zertarako ? Zure gogoetak idatziko dituzu 15 bat lerrotan.
2. Joanek gaztea « ofizio » hartan sartu zela dio 16. lerroan. Zer erran dezakezu bere nortasunaz ? Zuk, zeure burua ikusten duzu ingurugiro horretan, egoera horretan ? Zer egingen zenuen « ofizio » hartan sartzeko deitu bazintu norbaitek ? Zure argudioak garatuko dituzu 15 bat lerrotan.
3. "Joanek zuhurki jokatzeko ikasi zuen. Beharko!" idatzia da 27/28. lerroan. Aitaxi eta bilobaren arteko elkarrizketa bat asmatuko duzu (15 bat lerrotan) Kattalinek jakin nahi duen gauazko lanetan zer gertatu zitzaion zenbait aldiz eta nola ateratu zen haietarik.